


EKAINAK
27-28-29
JUIN ARBERATZE
- ZILHEKOA

EHZ*

LURRAREN
HERRITMOA



LURRAREN HERRITMOA

Iaz, Arberatzen instalatu zen EHZ. Amikuze eskualdera joan zen festibala euskal kulturaren eta herri dinamikentzat emankorak diren lurretan haziak ereitera. Lurra bezala, EHZ aberasten da eta etengabeko kimu hazkuntzan denez, Irisarritik Arberatzera joan zen festibalaren eta herri baten erritmoak uztartzera. Kulturgintzaren kapitalizazioa eta pribatizazio nehoiz baino bortitzagoa den garaiotan, EHZ-k landuriko lurak emankor izaten segitzen du, landatzen den herrian dinamikak bultzatzen baititu tokiko erritmora egokituz, Amikuze eskualdeko biztanleekin batera.

Ziklo desberdinez osatu da EHZ. Funtsean, urte anitez loratuz joan, eta leku aldatu behar izan du barnebiltzen dituen antolaketa talde eta laguntzaileen belaunaldien joan-jinen erritmora. Lurrez elikatuz eta soroak irauliz eraiki da urteetan zehar, salgai izan gabe.

Makrofestibletatik haratago, hemengo (h)erritmotik eraikitzen da EHZ. Lurra denen ondasuna den heinean, EHZk ere hala izan nahi du, herri batez osatua eta herriaren erritmoak markatua, produktu kultural merkantilizatuen erritmo frenetiko eta esponentzialetatik kanpo.

Arrosatik Arberatzera, belaunaldi belaunaldi milaka laguntzailek landatu dute EHZ, elkar trukea, auzolana eta autogestioa oinarri harturik. Lurraren (h)erritmoari esker ereinen dugu Euskal Herria Zuzenean!

L'année dernière EHZ s'est installé à Arberatze. Le festival s'est déplacé en Amikuze et y a ramassé une récolte foisonnante. À l'image de la terre, c'est en étant en mouvement permanent et en travaillant une dynamique culturelle locale, qu'EHZ s'enrichit.

Dans un contexte où la capitalisation et la privatisation de la culture atteint son apogée, EHZ reste fidèle à son modèle. Le festival vient nourrir une dynamique associative déjà en place là où il s'installe. Quel que soit le lieu, EHZ a toujours été attaché à l'idée de travailler avec les acteurs locaux. En poursuivant cette logique, nous tentons d'apporter, à notre niveau et humblement, un souffle aux dynamiques culturelles d'Amikuze.

EHZ est composé de différents cycles : le festival grandit au rythme des générations de bénévoles et à travers les éditions qu'il enchaîne et c'est ainsi qu'il s'épanouit depuis de nombreuses années.

L'Euskal Herri fait face à une culture bafouée par les lois du marché et c'est donc loin des macro festivals que EHZ décide d'évoluer. La terre, ce bien commun, peut être le lieu de rencontres fertiles et nourrissantes, et c'est ce qu'EHZ souhaite mettre en place avec l'aide de tous ces bénévoles.

D'Arrosa à Arberatze, de génération en génération, des milliers de bénévoles ont fait et font EHZ, sur la base de l'entraide et de l'autogestion. C'est en cultivant la terre que nous construisons Euskal Herria Zuzenean !



EHZ

Ohiko planteamendua

Egunean zehar, Arberatzeko plaza URRIRIK izanen da eta bertan orotariko animazioak izanen dira (zirko, kontzertu, haurren xokoa etab.). Azken urteetan bezala, mintzaldiak, tailerrak eta mahai inguruak antolatuak izanen dira hainbat gairen inguruan.

Arratsetik goiti, bi eszenatan banatua izanen da pentzea eta bertan segituko dute kontzertuek. Azkenik, Ipar Euskal Herriko lau ertzetatik festibalera hurbiltzeko autobusak antolatuko ditugu. Xehetasun gehiago emanen ditugu berantago.

Durant la journée, la place d'Arberatze sera accessible gratuitement au public, qui pourra profiter des nombreuses animations (cirque, concerts, coin enfants, théâtre, danse) qui seront proposées. De diverses conférences, ateliers et tables rondes seront également organisées autour de différents thèmes. Le soir, c'est dans le champ avoisinant la place que les animations se poursuivront, sur les deux scènes d'EHZ.

Enfin, des bus seront organisés dans tout le Pays Basque pour accéder au site du festival. Nous donnerons plus de précisions ultérieurement.

Lehen baieztapenak

Egitarauaren aldetik, orotariko musika estiloak oholtzara eramanen ditugu, doinu eta adierazpen mota ezberdinak taularatuz eta sorkuntza berriei plaza bat eskainiz. Besteak beste, aurten, talde hauek izanen ditugu EHZ-n: Auhen, Marte Lasarte, W!zard, Radio byzance eta Maskak. Horrez gain, eguneko programazioari doakionez, Oona Doherty eta Queer Falafel artistak izanen ditugu.

Côté programmation, nous restons fidèles aux principes qui nous ont guidés jusque-là : toutes sortes de styles musicaux seront présents sur scène dans le but de susciter la curiosité et de faire découvrir de nouvelles sonorités au public.

Entre autres, cette année se produiront à EHZ : Auhen, Marte Lasarte, W!zard, Radio byzance et Maskak. De plus, la programmation de journée accueillera les artistes Oona Doherty et Queer Falafel.



Lehen aurresalmentak

Gaurtik goiti hiru eguneko sarrerak 43€ euroan salgai dira apirilaren 1a arte, ehz.eus webgunean.

Bigarren eta hirugarren aurresalmentekin batera eta taldeak iragarri arau, informazio eta xehetasun gehiago igorriko dizkizuegu.

Azpinarratu nahi genuke EHZ ez dela sold-out kulturalan sartuko eta ondorioz denentzat lekua izanen dela iragartzen dizuegu. Kapitalismoak eragindako inflazio garai honetan, gure ahalegin guziak egiten ditugu festibala denendako eskuragarria izan dadin.

A partir d'aujourd'hui, les pass trois jours sont en prévente au prix spécial de 43 euros, jusqu'au 1 er avril, sur le site ehz.eus.

Nous vous donnerons plus d'informations et de détails sur la seconde et troisième prévente au fur et à mesure que nous annoncerons d'autres groupes de l'édition de cette année.

EHZ n'entre pas dans la logique du sold-out. En conséquence nous soulignons qu'à EHZ il y aura de la place pour tout le monde! En cette période d'inflation généralisée, cette année encore, nous avons fait tout notre possible pour ne pas augmenter le prix des tickets et pour que le festival soit accessible à toutes et à tous.

